

*Soraluzen, 2025eko urtarrilean*

Familia agurgarriak,

Eskutitz honen bitartez Soraluzen iaztik martxan dagoen espazio baten berri eman nahi dizuegu: "**Katamarran ume-txokoa**" **0-4 urteko haur eta familien espazio hezitzailea**.

Espazio hau herriko umeek aisialdirako dituzten aukera eta baliabideak aztertuta, txikienei beharrezkoak erreparatu eta hauei erantzuteko helburuarekin jarri zen martxan iazko udaberriari. Lokala **Etxaburueta kaleko 3. zenbakian** (Itxaropena jubilatuen alboan) kokatua dago, eta bertan txikienei gozatzeko moduko espazio estali eta goxo bat dago, material ugariarekin.

Esan bezala, gunea 0-4 urte bitarteko umeek erabili dezakete, beti ere heldu batekin. **Urteko 365 egunetan egoten da zabalik eta erabiltzeko izen-ematea ezinbestekoa da**. Izen emate kuota sinbolikoa da (**10 € urteko**, bakoitzaren aukeren arabera) eta trukean lokaleko giltza bat jasoko duzue.

Horrez gain, urtean zehar **familiantzako ekintza ezberdinak** ere antolatuko dira urtarriletik aurrera: ipuin kontalaria, mural margoketa, txotxongiloak... Horrez gain, familiendako **formazioa** ere eskainiko da.

**Udalaren zerbitzu bat izan arren, espazioaren kudeaketa familiek egiten dugu**. Lehenengo hilabeteetako ibilbidea osatuta, urte berriarekin batera oraindik ere espazioa ezagutzen ez duzuen familiei gonbidapena luzatu nahi dizuegu. Esperientzia ona izaten ari da eta azken batzarrean balorazio oso positiboa egin genuen erabiltzaile garen familiek. Horregatik eta jende gehiagorengana iristeko asmoz, ate ireki saio pare bat egingo ditugu.

**ATE-IREKIAK urtarrilaren 24 eta 25ean izango dira**. Ostirala 24, arratsaldean (16:30-19:00) eta larunbata 25 goizean (10:00-13:00). Gerturatu zaitzete eta lasai hitz egingo dugu!

Bitartean, **bestelako argibiderik behar izanez gero idatzi lasai:**  
[katamarranumetxokoa@gmail.com](mailto:katamarranumetxokoa@gmail.com) edo 676121578  
(Whatsapp/Telegram)

Ondo izan!

*Katamarran Ume Txokoko talde eragilea*